

Alternativa democrática, proceso democrático, unilateralidad, rendición, colaboración y viaje a la nada

JON IURREBASO ATUTXA :: 19/10/2021

Para la socialdemocracia y la burguesía el Estado Socialista Vasco no es posible, no es valioso y mucho menos rentable.

[Euskara]

Alternatiba demokratikoa, prozesu demokratikoa, aldeakartasuna, amore emate hutsa, kolaborazioa eta ezerezerako bidaia.

ENAM-en 2009ko kolpe publikoaren lobby-ak kapitalaren zerbitzura dagoen nazioarteko diplomaziaren konplizitatea izan zuen, maniobraren aurretik eta ondoren. Erabilera horren eszenifikazio publiko gorena Aieteko jauregian egin zen, 2011ko urriaren 17an, eta ETAk jarduera armatua behin betiko utzi zuen 3 egun geroago.

Egun hauetan, ENAM-en amaiera ahalbidetu zuen lobby-ak Aieteko eszenaratzearen 10. urteurrena ospatzen du. Armak entregatzera behartzeaz gain, ETArri eta ENAM-i beren askapen nazional eta sozialeko ildoari uko eginarazi zien lobby berberaz ari gara.

Horrela, urte gutxiren buruan, kapitalaren demokrazia/diktadura pean alternatiba demokratikoa argudiatu zen (egoera demokratiko batean bakarrik egin daitekeena). Ondoren, prozesu demokratiko bat egin nahi izan zen, non Euskal Herria bere etorkizunaren jabe izango zen, kapitalaren diktadura berean. Halako moldez non, frantziar, espainiar eta euskal burgesiaren borondaterik eza ikusirik, aipatutako lobby-ari bere kabuz amore emateko eta kolaboratzeko ideia zoragarria "bururatu" baitzitzaien. Azkenean gertatu zenaz noiztik zen jakitun ez dakigu batzuk behintzat.

Hau da, nahiz eta oso baldintzatuta egon klasearteko filosofiagatik, hainbeste urtetako gerraren higaduragatik, horrek guztiak dakartzan kontraesanengatik, sozialdemokraziaren eta burgesia txikiaren presioagatik, etsai nazionalaren eta klasekoaren presioagatik eta abarregatik, ezin dira azken 60 urteetako borroka-bandera nagusiak utzi.

Hau da, agian Ezker Abertzale Ofizialaren osoari ezin zaio eskatu kontzesiorik gabeko klase- eta nazio-maila bat izatea; praxi iraultzaile bat, unean uneko baldintza objektibo eta subjektiboekin, norberaren eta etsaiaren aurrerapen eta atzerapenekin, nazioarteko egoerarekin eta abarrekin bat datorrena. Alta, lerroa erabat aldatzen ez bada, ziur gaude etsai nazionalaren eta klasekoaren arauen pean alde bakarretik amore ematen duten azken aldia ez dela izango.

Sortu-ren aitabitxi eta amabitxi den lobby-a (eta denborak aurrera egiten duenez, eta bere neurrian, egiten uzten diotenek edo kontzienteki laguntzen dutenek ere ardura dute) bekainetaraino sartuta dago 2009. urtea baino dezente lehenagotik gaur egunera arte.

Inperialismoarekiko harremanak (inork ez daki noraino), Espainiako Estatuko gorputz errepresiboekiko omenaldia, PSOE-GAL erakundearekiko lankidetzak, ... Orduak beharko genituzke bere jarduera kolaborazionista zehatz-mehatz azaltzeko, maila nazionalen, zein maila sozialean.

Gauzak horrela, beren eragin politikoaren ardatz praktiko nagusia kapitalari bere iraupenerako eta nagusitasunerako beharrezkoak zaizkion tresnak baliozkotzea da. Aldi berean, herri eta gizarte mugimenduan presentzia urria eta erreferentziarik ez izatea eta langile mugimenduan klase-posizio eta praktika sendorik ez izatea, aldizkako performance eta diskurtso lauso eta klaseartekoekin ordezkatzeko da, historian zehar sozialdemokraziari antzeztea egokitu zaion bezala.

Beren praxian, ezerk ez dio ihes egiten errentagarritzat, posibletzat edo baliozkotzat jotzen dutenari. Sozialdemokrazia eta burgesiarentzat Euskal Estatu Sozialista ez da posible, ez da baliotsua eta are gutxiago errentagarria. Indibidualtasuna, ongizate pertsonala eta mundu zoriontsua dira nagusi ahientzat, baita gaur egungo okupazio- eta esplotazio-baldintzetan ere.

Euskal Estatu Sozialista eraikitzearen alde.

Jon Iurrebaso Atutxa 2021-10-17

[Castellano]

Alternativa democrática, proceso democrático, unilateralidad, rendición, colaboración y viaje a la nada.

El lobby del golpe público de 2009 en el MLNV contó con la diplomacia internacional al servicio del capital antes y después de su maniobra. La máxima escenificación pública de este manejo se realizó en el palacio de Aiete el 17.10.2011 seguido del cese definitivo de la actividad armada de ETA tan sólo 3 días después.

Estos días el lobby que posibilitó el final del MLNV celebra el 10 aniversario de la escenificación de Aiete. Hablamos del mismo lobby que, además de obligar a entregar las armas, hizo renunciar a ETA y al MLNV a su línea de liberación nacional y social.

Así, en pocos años, se argumentó la alternativa democrática (sólo realizable en una situación democrática) bajo la democracia/dictadura del capital. Posteriormente, se pretendió realizar un proceso democrático donde el Pueblo Vasco fuera dueño de su futuro, bajo la misma dictadura del capital. De tal manera que, vista la nula voluntad de los Estados francés, español y de la burguesía vasca, al lobby se le “ocurrió” la maravillosa idea de rendirse unilateralmente y colaborar. Al menos algunos/as no sabemos desde cuando eran conscientes de lo que al final ocurrió.

Es decir, por muy condicionado que se esté por la filosofía interclasista, el desgaste de tantos años de guerra, las contradicciones que todo ello conlleva, la presión de la socialdemocracia y pequeña burguesía, la presión del enemigo nacional y de clase, etc., no se pueden abandonar las principales banderas de lucha de los últimos 60 años.

Esto es, quizá no se le pueda pedir al conjunto de la Izquierda Abertzale Oficial que mantenga una posición de clase y nacional sin concesiones; una praxis revolucionaria acorde con las condiciones objetivas y subjetivas del momento, con los avances y retrocesos propios y del enemigo, con la situación internacional, etc. Sin embargo, salvo que la línea cambie totalmente, lo seguro es que no será la última vez que se rindan unilateralmente bajo las reglas del enemigo nacional y de clase

El lobby, padrino y madrina de Sortu (y como el tiempo pasa, en su medida, también cuentan los y las que le dejan hacer o colaboran activamente), está entrampado hasta el fondo desde bastante antes del 2009 hasta nuestros días. Relaciones con el imperialismo (nadie sabe hasta dónde), homenaje a los cuerpos represivos del Estado español, colaboración con el PSOE-GAL, ... Necesitaríamos horas para explicitar con pelos y señales la práctica colaboracionista tanto a nivel nacional como social.

En esas están, teniendo como principal eje práctico de su accionar político el validar a los instrumentos que le son necesarios al capital para su subsistencia y hegemonía. Al mismo tiempo, su escasa presencia y falta de referencia en el movimiento popular y social y la falta de una firme posición y práctica de clase en el movimiento obrero, se suple con periódicas performances y discursos difusos e interclasistas, como históricamente a la socialdemocracia le ha tocado teatralizar.

En su praxis, nada se escapa a lo que consideran rentable, posible o tenga valor. Para la socialdemocracia y la burguesía el Estado Socialista Vasco no es posible, no es valioso y mucho menos rentable. Para ellos/as, prima la individualidad, el bienestar y un mundo feliz incluso en las actuales condiciones de ocupación y explotación.

Por la construcción del Estado Socialista Vasco.

Jon Iurrebaso Atutxa 17-10-2021

<https://eh.lahaine.org/alternativa-democratica-proceso-democratico-unilateralidad>